

Irrati komunitarioak

Munduko herrien ahots anitzak

80ko hamarkadako eskarmentuan oinarrituta, asko dira, oraindik ere, Euskal Herriko irrati libreak. Gehienak Arrosa egitasmoaren baitan daude, eta hainbatek nazioartean ere hartzen du parte. Pasa den azaroan, Tas-Tas irrati libreak antolatuta, euren batzarrak egin zituzten Bilbon Hedabide Komunitarioen Estatu Sareak (HKES) eta Irrati Komunitarioen Mundu Elkarteak (AMARC). Oso egoera ezberdinak islatzen dituzten herri komunikatzaileek bat egin zuten partekatzen duten arazo nagusiari –nazioarteko araudietan onartuak izateaguztien esperientziarekin aurre egiteko.

Argazkiak eta testua:

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

DUELA HOGEITA LAU URTE, hainbat lekutatik iritsitako irratigile talde batek Montrealen (Kanada) egin zuen bileran, irrati komunitarioak batuko zituen nazioarteko elkarte gorpuzten hasi zen. 1986an, mugimendu hura AMARC bilakatu zen, hau da, egun ia 110 herrialdetan 3.000 irrati komunitario biltzen dituen elkarte, tartean Bilboko Tas Tas Irrati Librea eta Hendaiaiko (Lapurdi) Antxeta Irratia. Elkarlana eta lankidetzaren oinarri, irrati parte-hartzaileak garatzea dauka helburu.

Zer da, baina, irrati komunitarioa? José Ignacio López Vigil kubatarrak hala definitu du *Irratigile sutsuen premiazko eskuliburuan*: “Irrati batek hiritarren parte-hartzea bultzatzen badu eta bere interesak defendatzen baditu; eguneroko arazoak konpontzeko lagungarria bada; irratsaioetan ideia

guztiak eztabaidan badaude eta iritzi oro errespetatzen bada; merkataritza homogeneizatzearen kontra eta kultur aniztasunaren alde egiten badu; emakumea informazioaren protagonista (eta ez apaingarri) bada; inongo diktadurarik onartzen ez bada (ezta konpainia handiek inposaturiko musikarena ere); denon hitza airean badabil, bazterkeriarik eta zentsurarik gabe: horixe bera da irrati komunitarioa”. Diruaren eta propagandaren logikatik at, gizartearen mesederako lan politikoa egiten dute: demokraziaren oinarriak zabaltzea eta adostasunak sortzea dute xede; komunitatea eraiki nahi dute.

AMARC-Afrikaren koordinatzaile nagusi Omar Mamadou senegaldarrak labur azaldu digu irrati komunitarioek Afrikako politikekin duten lotura: “Irrati hauek oso garatuta daude,

AMARC Irrati Komunitarioen Munduko Elkarteak Bilbon egindako batzarreko irudiak. Ezker-eskuin: Omar Mamadou, Pía Matta, Mariano Sánchez eta Agustín Hernán.



Hegoafrikan eta frantses koloniak izan ziren estatuetan (Benin, Senegal) sistema demokratikoak daudelako. Eta, Hegoafrikan gertatu bezala demokrazia heltzerakoan lagungarriak izan ziren heinean, egun ere lagungarriak dira gobernuen euren asmo berriak jendartean zabaltzeko”. Urteak eman ditu Mamadouk Beningo irrati komunitarioak koordinatzen. Hirurogei daude denera eta gobernuak beste hainbeste baimen emateko prest dago. Afrikako beste zonaldeez berba egiterakoan ordea, serio jarri da Mamadou: “Militarrek gobernaturiko Nigerian, edota gabezi demokratiko asko dauden Magreben irrati beldur dira gobernuak. Hala ere, ia Amannen egin genuen batzarrean estatu horietan herri irratigintza garatzeko konpromisoa hartu genuen, eta horretan ari gara”.

Asiari dagokionez, AMARCEk 2003an Nepalen egin zuen zortzigarren batzar nagusia Asian sekula egindako herri irrati topaketarik handiena izan zen. Ekialde Hurbilean, Asian eta Ozeano Barean irrati komunitarioak garatzeko abiapuntua izan zen batzarra, eta euren aburuz, Afganistango edo Birmaniako gatazkak askatzeko baliogarriak izan daitezke.

Ameriketean, erregimen berrien proiektuak zabaltzeko ez ezik, komunitateentzat ezinbestekoak diren zerbitzuak (hezkuntza, osasuna eta halakoak) ahalbidetzeko ere balio dute irrati hauek. Mila irrati komunitario inguru daude Latinoamerikan. Dena dela, Gustavo Gómez uruguaiarrak adierazi duenez, ezin dira irrati komunitariotzat hartu azken urte hauetan nonahi agertu diren irrati erlijiosoak: “Ez dugu esan nahi ezin dela erlijioaz edota politikaz barbarik egin, bizitzaren zati direlako, baina helburu bakarra proselitismoa badute (eta horrela da), irrati horiek ez dira komunitarioak”. Gómezen aburuz justizia eta askatasuna xede dituztenak dira zinezko irrati komunitarioak. Pía Matta txiletarra Latinoamerikako AMARCEn presidentea dugu; berak azaldu digu zonaldeko irrati egoera zela-koa den: “Mota askotako irratiak daude, handiak eta txikiak, txarto eta ondo kudeatuak, proiektu

politikoa ondo zehaztua dutenak eta oso garatuta ez dutenak. Hala ere, bidea zelan egin, sarea zelan eraiki jakin dugu. Gaur egun, hedabideen inguruko legedia aztertzen ari gara, hainbat elementu zaharkituta daudelako: hala nola baimenen banaketak edota esparru elektromagnetikoan sartzeko baldintzak. Ez dugu hedabideak gobernuen edota konpainia handien menpe egotea nahi, eta jarduteko eskubide osoa nahi dugu”. Uruguaiako legebiltzarrean eztabaidatzen ari diren lege berria eredugarria dela uste du Mattak: “Legeak hirutan banatzen du hedabideen arloa (pribatua, publikoa eta komunitarioa) eta irrati komunitarioena ez dago baztertua”.

Europan ere, uhinetara ateratzeko legediek ezartzen dituzten zailtasunak dira irrati komunitarioen oztopo nagusia. Hego Euskal Herriari dagokionez, Espainiako Gobernuaren Ikusentzunezko Lege Orokorrari eta FMko irrati-tzako frekuentzia banaketei aurre egitea da asmoa. Herbehereetako eta Frantziako Estatuko legediak aurrerakoenak diren arren, han ere txakurrak oinutsik: Hendaiako Antxeta irrati Agustin Hernanek salatu du Frantziar baimenak ematerakoan dagoen irizpide falta: “Ez dakigu baimena zergatik ematen dioten Parisko irrati komertzial bati, Baionan bertan hiru herri egitasmo egonda. Lobbyen eragina nabaria da”. Beharrezkoa da, beraz, Europako koordinazioari eustea. Momentu hauetan, AMARC-Europa birjaiotze prozesuan dago; elkar ulertze arazoak eta gabezi teknikoak medio elkarte desagertzera iritsi baitzen. AMARC-Europako presidentea eta Radio Vallecako partaite historikoak, Mariano Sánchezek, deialdia luzatu du: “Lau urte ditugu inoiz bazkideak izan direnak AMARC-Europa berpiztera anima daitezten, egungo egoera zailak horren premia dauka. Legedi bakan batzuk aurrerakoiak diren arren, murriztaileak dira ia gehienak”. Gainera, bigarren erronka garrantzitsua ere badu AMARCEk: teknologia berriei esker jaiotako beste herri hedabideekin elkarlana bultzatzea. Gizartearen ahotsa izan nahian lanean jarraitzeko indarra behintzat ez dute galdu. ■

